ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK ETA OSAGARRIAK	AINHOA VIDAL/JUAN LEKUE/AITZIBER NABEA
PREMIA/MANTENTZE INFORMATIKOA	IÑIGO ALDAMA/ / VICTOR MARTÍN /ANE MIREN VARELA
INIKA	IÑIGO ALDAMA
BERRIKUNTZA	IBAI IPARRAGIRRE ARKAITZ SAN JOSÉ LAURA SANCHEZ LEIRE UGARRIZA (L.H)
SEGURTASUNA	OIHANE ARBAIZAGOITIA
ETHAZI ARDURADUNA	LEIRE GÓMEZ
TAILERREN MANTENTZE ETA ANTOLAMENDUA	LUISFER TARAMONA
KALITATEA	IDOIA IBARRETXE/IÑAKI RODRIGO
LANBIDE/EZ ARAUTUAK	IDOIA IBARRETXE/IÑAKI RODRIGO
FCT ETA DUAL	LEIRE UGARRIZA / IBAN ESTEFANIA
DUAL	LEIRE UGARRIZA / IBAN ESTEFANIA
BIZIKASI ETA HEZKIDETZA	OIAKUA AZPIRI
WEB ORRIALDEA / SAREAK	MARIA IBARROLA/IÑIGO ALDAMA/LAURA SÁNCHEZ /
JANTOKIA ETA GARRAIOA	ISABEL MUGURUZA

INTERNAZIONALIZAZIOA / EUOPAR PROIEKTUAK	ANE MIREN VARELA, JON MARTINEZ, UNAI CLEMENTE, IBAI IPARRAGIRRE
HEDATZE	MARI CARMEN ANDRÉS, IMMA CIRION, ISABEL MUGURUZA.
HNP	IÑAKI SOLAUN/MARIA IBARROLA/AINARA APRAIZ
AGENDA 2030	AIDA UTERGA

g) Eskola Kontseiluko ordezkariak

BEREKO KIDEAK:

- Zuzendaria: Iñigo López De Santiago
- Ikasketa-Burua : Isabel zabaleta
- Idazkaria : Imma Cirion San Román

UDALEN ORDEZKARIAK

Txerra Molinuevo Laña(Amurrio)

Iker Santocildes Pérez (Urduña)

Jon García Gómez (Artziniega)

Gentza Alamillo Udaeta (Aiara)

Jon Eskuza (Okondo)

IRAKASLEEN ORDEZKARIAK

2022-23 ikasturtean egindako hauteskunde prozesuan 4 urterako hautatuak (2026-27 ikasturteko 1. hiru hilabeterarte O.O.G.ko kide izendatuak)

Gorostiza Fernández, Iker

Muguruza Sagastizabal, Isabel

Viteri Salazar, Miren

2024-25 ikasturtean egindako hauteskunde prozesuan 4 urterako hautatuak (2028-29 ikasturteko 1. hiru hilabeterarte E.K ko kide izendatuak)

Hinojosa Castro, Asier

Álvarez Pérez, Juan Karlos

Frontela Criado, Pedro

Martin Martin, Victor

Pascual Ortiz, Nahia

2024-25 ikasturtean egindako hauteskunde prozesuan 2 urterako hautatuak (2026-27 ikasturteko 1. hiru hilabeterarte E.K .ko kide izendatuak)

Oribe Colas, Desirée

Casero Alonso, Verónica

García Villalain, Encarna

Urresti Ortiz, Josetxo

Ordezko bezala sartzan dira, titularrek lekualdatzeagatik, jubilazioaz edota karguz aldaketagatik.

Zurimendi Eloriaga, Estibaliz

Abiaga Acha, Virginia

Estefania Miranda, Iban

EZ IRAKASLEEN ORDEZKARIA

2022-23 ikasturtean egindako hauteskunde prozesuan 4 urterako hautatua (2026-27 ikasturteko 1. hiru hilabeterarte O.O.G.ko kide izendatua)

Nagore Gandarias Aguirre

GURASOEN ORDEZKARIAK

2022-23 ikasturtean egindako hauteskunde prozesuan 4 urterako hautatuak. (2026-27 ikasturteko 1. hiruhilabeterarte E.K.ko kide izendatuak).

Arantza Aldama Larrea

Mari Jose Colomino González

Enartze Larrakoetxea Arkarazo

2024-25 ikasturtean egindako hauteskunde prozesuan 4 urterako hautatuak. (2028-29 ikasturteko 1. hiruhilabeterarte E.K.ko kide izendatuak)

Uña Galvez, Esther

Castresana Viloría, Isabel

Serrano Vaquero, Jon

Muinozguren Fuentes, Gorka* suplentea

2024-25 ikasturtean egindako hauteskunde prozesuan 2 urterako hautatuak. (2026-27 ikasturteko 1. hiruhilabeterarte E.K.ko kide izendatuak)

Abascal Eguiluz, Karmele

Isla Isasi, Susana

*Vadillo Antoniano, Sandra (Berezko kide bat, AMPA-Babioren ordezkaria)

IKASLEEN ORDEZKARIAK

2022-23 ikasturtean egindako hauteskunde prozesuan 4 urterako hautatuak. (2026-27 ikasturteko 1. Hiruhilabeterarte O.O.G.ko kide izendatuak)

Lexuri Mendiguren Iturrioz

Alain Roizo Otaola

2024-25 ikasturtean egindako hauteskunde prozesuan 4 urterako hautatuak. (2028-29 ikasturteko 1. hiruhilabeterarte O.O.G.ko kide izendatuak)

Coman Coman, Claudio

Sabater Bazan, Erik

Lusarreta Vilches, Urki

Dominguez Salgado, Enaitz

2024-25 ikasturtean egindako hauteskunde prozesuan 2 urterako hautatuak. (2026-27 ikasturteko 1. hiruhilabeterarte O.O.G.ko kide izendatuak)

Valencia Méndez, William

Kamal Haddouten, Bilal

Astobiza Renes, Izaro

Fuñoli Contreras, Eduardo* suplentea

HEZKUNTZA-ARRETA OSAGARRIZKO LANGILEEN ORDEZKARIA:

2024-25 ikasturtean egindako hauteskunde prozesuan 4 urterako hautatuak. (2028-29 ikasturteko 1. hiruhilabeterarte E.K.ko kide izendatuak)

González López, Eurne

h) Tutoretzak

Tutoretzen banaketarako irizpideak: Tutore gehienek eskarmentua dute tutoretza lanetan, batzuk taldearekin errepikatzen dute edo iazko maila berean daude. Lanbide heziketan tutore gehienak ere eskarmentudunak dira gure ikastetxean. Ahal neurrian, beraz, saiatu gara tutoretzak zaintzen, aintzat harturik tutorearen rola garrantzia ikasleen eskola bizitzan eta garapenean.

TUTORETZAK 2025-2026 IKASTURTEA						
MAILA	TALDEA	TUTOREA	KOTUTORE A	IKASLE KOPURUA TALDEKA	IKASLE KOPURUA MAIAKA	IKASLE KOPURUA ZIKLOKA
DBHko 1.a	D	Ainhoa Yarritu (GAZTE)	Lorea G/Ainhoa G(INFOR)	24	129	264
	E	Mertxe Ortueta (EUS)	Mikel Yarritu (HIS)	22		
	F	Virginia Abiega (MATE)	Ainhoa Vidal(FILO)	23		
	G	Aitor Santisteban (BIO)	Leire Roldan de Aranguiz(HEZ FIS)	18		
	H	Tamara Quintana(ING)	---	19		
	I	Oihana Cabello(HIS)	---	15		
	G.E	Elena Robledo		6 (1+5)		
DBHko 2.a	D	Haizea M.(GAZT)	Ana Mendia(TEK)	24	135	
	E	Soraia Muñoz (EUS)	I. A -Ekain U.(MATE)	23		
	F	Amaia Diego (MATE)	Esti Lafuente(HIS)	21		
	G	Ander Urrutia(FIK)	Ainhoa Devesa(ING)	22		
	H	Markel Manuel(HIS)		17		

	I	Saioa Flores(ING)	Isabel Veiga(GAZT)	23		
MAILA	TALDEA	TUTOREA		IKASLE KOPURUA TALDEKA	IKASLE KOPURUA MAIAKA	IKASLE KOPURUA ZIKLOKA
DBHko 3.a	D	E Z./Javier Diaz (MATE)	()	19	110	199
	E	Maite Goikolea(FIKI)	Aida Uterga(BIO)	19		
	F	Juan Modrego (HIS)	Aizaro M.(HEZ FIS)	23		
	G	Igor Zearreta(TEKNO)	()	20		
	I	Haizea Otaola (BIO)	-----	15		
	H	Germán F. (tut 1)	Roberto M.(tut2)	11		
DBH 4.a	D	Iker Gorostiza(FIK)	-----	19	89	
	E	Eneritz Arbide (ING)	-----	20		
	F	Ibai Iparragirre(HIS)	-----	16		
	G	Nerea Gomez (LAT)	-----	20		
	H	Janire E.	Txefo L.	15		
Batxilergoko 1.maila	D	Idoia I. (BIO)		22	91	178
	E	Julen V. (MARRAZ)		24		
	F	Ane Miren S.(GAZT)		20		
	G	Lydia V. (EUS)		21		
Batxilergoko 2.maila	D	María I. (EUS)		24	87	
	E	Iratxe A.-Javier S(GAZTE)		23		
	F	Honesti G. (ENP)		20		
	G	Carol R. (FILO)		21		

OLH 1 (A) 1 ZU1	Mikel Erdozia
OLH 2 (A) 2 ZU2	Aitor Olalde
OLH 1(D) IEM1	Gorka Goiriena
OLH 2 (D) 2IEM2	Aitziber Nabea
1 ME2 (A-D) MK2	LuisFer Taramona
2 ME2 (A-D) MK2	Juanjo Fuente
1 MT2 (A-D)	Javier Diaz
2 MT2 (A-D)	Inaki Rodrigo
1 AS2 (A) AD1	Enkarna Garcia
1 AS2 (D) AD1	Miren Urretxu (Ane Elexpe)
2 AS2 (A) AD2	Amaia Negro
2 AS2 (D) AD2	Veronica Casero
1 MI3 (D)	JuanKar Alvarez (Itziar Aspiazu)
1 MI3 (A)	Ander Urizar
2 MI3 (A-D)	Endika Tena
1 GI3 (A)	Iratxe Lazkano
1 GI3 (D)	Oiakue Azpiri
2 GI3 (A)	Erika Llamazares
2 GI3 (D)	Izaskun Rementeria

i) Ikastetxean ezohiko arreta emateko saioen antolaketa

Irakasleek ikastetxean astean 30 orduko zuzeneko dedikazio arrunta izango dute. Astean gutxienez 23 ordu ikastetxeko ohiko egonaldikoak izango dira, eta ordu horien artean daude:

Curriculumak irakasteko orduak eta hezkuntza-errefortzuko orduak (gehienez 18 ordu astean) Ikasleekiko tutoretza-orduak

Hezkuntza-arreta orduak, jolasgaraiko zaintzak barne

Gurasoei arreta emateko orduak

Didaktika-departamentuaren bilera

IUPan zehaztutako prestakuntza planak gauzatzeko jarduerak.

Ikastetxean zuzenean dedikatu beharreko asteko gainerako 7 orduetan, besteak beste, hauek egingo dira:

- Hedatze proiektuko orduak (DBH-Batx irakasleak)
- Ikastetxea planifikatzeko eta antolatzeko tresnak prestatu.
- Ikastetxearen proiektu estrategikoak aurrera eraman.
- Departamentu buruen bilerak.
- Tutoreen bilerak.
- Klaustroak eta eskola kontseiluak.
- Gelako irakasle taldearen koordinazio bilerak egin.
- Mailako tutoreen bilerak antolatu ikastetxeko orientatzailearekin, tutoretza-orientazio plana egokitze, ikasleen ongizate-emozionala zaintze aldera neurriak hartzeko
- Ebaluazio eta aurrebaluazio bilerak egin.
- Zuzendaritzak adostutako bestelako eginbeharrak

j) Ikasleak taldekatzeko irizpideak

DBH lehen mailan zentro iturritik emandako aholkuei jarraitzen diegu, ia ehuneko ehunean.

Beste mailetan hautazko ikasgaien aukerak du garrantzia, ikasleen arteko afinitatea, aurreko tutore eta orientatzailearen aholkuekin batera. Aldi berean, saiatzen gara zailtasunak dituzten eta sortzen dituzten ikasleak banatzen, ahal den neurrian. Laguntza behar duten ikasleak, errekurtsoen arabera banatuko dira ahalik eta talde gehienetan.

k) Hezkuntza errefortzua eta laguntza antolatzeko irizpideak

Delegaritzak errefortzurako emandako orduen artean, ordu kopuru gehiena ondorengo eremutan erabili da:

6. taldea 1. DBHn

3. orientatzailea.

Inklusibitatean lan egiteko errefortzuak.

Bigarren DBH-ko HBSP taldeetan bi irakasle sartzen dira gelan hainbat ikasgaietan.

Etorkinei hizkuntza-errefortzu orduak eman dizkiegu. (Eusle eta HIPI)

l) Amankomuneko guneen antolaketarako eta banaketarako irizpideak

Ikastetxeak hiru gune nagusi ditu: Lanbide heziketako patioa, patio zentrala eta DBHko lehen zikloko patioa. Iaz bezala 2DBHkoek patio zentrala erabiliko dute, ikasle nagusiago gehienak (3-4 DBH) kalera ateratzen direla aprobeztatzuz.

m) Segurtasuna

Maiatzean eta ekainean, Ikastetxean dagoen lan arriskuen prebentzioaren gaineko dokumentazioa, ISO 9000 kalitatearen arautegian jasota dagoena eta Eusko Jaurlaritzako Barne Sailaren Eskola Larrialdi Plana, berrikusteko behar diren bilerak egiten dira. Zuzendariak, Kalitatearen Ordezkariek eta HIPEko koordinatzaileak osatzen duten taldeak onarpena eman behar dio berrikuspenari.

Pertsonen babesa eta segurtasunerako, ezarritako protokoloari jarraiki Ikastetxearen ebakuazio ariketa burutzen da. Bestetik, istripu simulakro bat egiten da, orokorrean, tailerretan.

Eraikinei dagokienean, ondoko aspektuen egiaztapena egiten da:

Informazio kartelak (larrialdiko irteerak, planoak, segurtasun arauak, argibideak botikinetan, etab)

Larrialdi argiak
Itzalgailuak
Ur haguneak
Botikinak
Megafonia
Berogailu galdarak

Laborategiak	eta Tailerrak
Tximistorratza	
Igogailua	
Larrialdi ateak	
Eraikinaren	egoera orokorra

EBAKUAZIO SIMULAKROA Abenduan egingo da.

ISTRIPU SIMULAKROA maiatzaren erdialdean egingo da. Urteko Plan honetan adierazten dugu zein den istripu edo osasunarekin erlazionatutako gertaera baten ondoren jarraitu behar dugun prozedura: Zaintzako irakasleari deitu behar zaio egoeraz arduratzeko eta prozesua kudeatzeko. Arina bada, ikasleari laguntza bertan emango zaio, bukatu ondoren, ikaslea gelara itzuliko da eta beharrezkoa bada familiari deituko zaio.

Botikinak ondorengo tokietan daude: Ikasketa Buruaren ondoko bulegoa, atezaintza, gorputz heziketa mintegia, lanbide heziketako irakasle gela, mekanizazio tailerra, zurgintza tailerra eta kimika laborategian.

Istripu larri bada zaintzako irakasleak baloratuko osakidetzako edozein zentrorra eramatea edo 112 telefonora deitzea.

- irakasleak osakidetzako zentroan ez du ezer aurkeztu behar.
- osakidetzak kudeatuko de inssekin izandako istripua.
- lekualdatzea anbulantziak egiten ez bada (112 deituta), oinez edo taxiz egin beharko da eta kotxe partikularraz azken aukera bezala.
- zaintzako irakasleak gurasoak abisatu behar ditu.
- irakasleak osakidetzako zentroan egon eta gero (egunean bertan edo ondoko egunetan) idazkaritzatik pasatu beharko da istripuaren erregistro orria betetzera.
- DBH/Batxi istripu edo zerbait larria bada "Anbulantzia deitu ondoren, eta iritsi arte, LHko hiru erizainetako batekin (Iban, Silvia edo Ane) harremanetan jarriko da, laguntza eman dezaten zain egon bitartean."

Segurtasun arduraduna Oihane Arbaizagoitia da, Lanbide Heziketako irakaslea. Edozein gertaera botikin ondoko erregistro orrian adieraziko da eta emailaz bidaliko da horren berri oihane.arbaizagoitia@zaraobe.net helbidera berak kontuan hartzeko.

3.2. Tutoretza plana

TESTUINGURUA

Zaraobe BHI Amurrio udalerrian kokaturik dago, Arabako lurraldearen Ipar-mendebaldean, Bizkaia eta Burgos lurraldeekin mugakide delarik. Ikastetxearen eraginguneak Aiara Haraneko eskualdea eta Bizkaiko Urduña udalerria dira. Hain zuzen ere, hauexek dira ikastetxearen eragin-gunearen udalerriak: Amurrio, Urduña, Artziniega, Aiara eta Okondo.

Aiaraldearen Etorkinen kopurua esanguratsua da nahiz eta biztanleriaren heren bat pasatxo euskalduntzat hartzen du Eustatek. Egoera sozio-ekonomikoari dagokionean, bestalde, Aiarak ematen ditu datu hobereak eta Urduñak ordea, xumeak.

Zaraobek proaktiboa izan behar du, beraz, gizartearen esparru sozioekonomikoan, enpleguaren sorreran eta biztanle etorkinen integrazioan bereziki. Arlo sozio-linguistikoari dagokionez, eskualdean gaztelera nagusitzen da. Zaraobeko hizkuntza proiektuan argi islatzen denez, euskararen ezagutza gora doa, baina ez neurri berean erabilera. Tutoretza Planan honetan erantzuna izan behar du guzti hau.

Zaraobeko hezkuntza eskaintza honakoa da: DBH, Gela Egonkorra, Batxilergoa, eta Lanbide Heziketa (HLH, EM, GM). Aniztasunari erantzuteko programei dagokienez hauek aipa ditzakegu, besteak beste: HBSP, Aniztasun Taldea, Osagarri Programa eta Bidelaguna.

Tutoretza planak erantzuna emango dio maila-ziklo bakoitzean ikasleen ezaugarri eta beharriari, beti ere Curriculum jarraituz.

LEGE-ESPARRUA

77/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.

21. artikulua. – Hezkuntzarako tutoretza eta orientazioa.

1. – Hezkuntza-orientazioa etengabeko laguntza-prozesua da, sistematikoa, irakasteko jardueran sartzen dena, eta haren helburua ikasleei funtsezko konpetentziak garatzen eta eskuratzen laguntzea da, beren proiektu pertsonalaren eta profesionalaren jabe izan daitezen eta herritartasuna gauzatu dezaten.
2. – Hezkuntza-komunitate osoaren ardura da; berariaz, irakasle-taldeari dagokio, eta, bereziki, tutoreari; izan ere, tutorea da bere taldeko ikasleen orientazio akademiko eta profesionalaren arduradun nagusia, eta hark du ikasle horiei eskolak ematen dizkieten irakasleak koordinatzeko eta ikasleen gurasoekin edo legezko arduradunekin komunikazio arina ezartzeko ardura nagusia. Hori guztia irakasle orientatzaileen edo aholkularien laguntzarekin egingo da.
3. – Ikastetxearen hezkuntza-proiektuak hezkuntza-orientazioa arautzen duten printzipioak ezarriko ditu, eta tutoretzaren eredua zehaztuko, printzipio horien arabera.
4. – Ikastetxeko zuzendaritzak adi egon behar du hezkuntzarako tutoretzako eta -hezkuntza-orientazioko ekintzak ikastetxeko profesional guztien eta hezkuntza- komunitateko gainerako kideen artean banatuta eta koordinatuta gauzatu daitezen, hezkuntza-etapa bakoitzaren ezaugarrietara egokituta.
5. – Eskubideen eta aukeren berdintasuna sustatzeko, hezkuntza-zentroek emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarria garatzeko neurriak txertatuko dituzte tutoretzako planetan eta elkarbizitza planetan.
6. – Hezkuntza-orientazioak, ikastetxearen Urteko Planean eta Hezkuntzarako Tutoretzan txertatuta, ikasleen garapen integrala bermatzen duten jarduera programatuak, sistematizatuak eta ebaluagarriak jaso behar ditu, baita eskolaldiko laguntza pertsonalizatua ere, eta nork bere burua ezagutzera eta autonomia garatzera bultzatu, erabakiak hartzeko orduan gida ditzan ikasleak. Irakasle-taldek, gainera, ikasleen ikaskuntzaren eta autonomiaren aldeko estrategia didaktikoak eta pedagogikoak sartu behar dituzte.
7. – Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapan, orientazio-prozesuak barnean hartuko ditu ikasleei beren burua ezagutzen laguntzen dieten eta prestakuntza- ibilbidea eta bizitza-

proiektua egiteko orduan erabakiak hartzen laguntzen dieten orientazio pertsonal, sozial, akademiko eta profesionaleko jarduerak, eta lan-orientazio guztien berri jakitea bultzatuko da, estereotipo sexistarik gabeko interes eta bokazioak pizten laguntzeko.

8. – Behar bezala garatutako hezkuntzarako tutoretzak bermatzen du taldeko ikasle bakoitza banaka eta bere berezitasunekin hartzen dela aintzat. Talde bakoitzeko tutorea da laguntzeko, desberdintasunak hautemateko eta inklusioa eta aniztasuna indartzeko aukera gehien duen pertsona hezkuntza-komunitatean.

9. –Tutoretza hezkuntza-ekintzen multzo bat da, zeinek funtsezko konpetentziak lortzen laguntzen baitute eta, aldi berean, beharrezkoak baitira ikasleen ibilbide pertsonala, akademikoa eta profesionala —bilakaera-unearen eta hezkuntza-etaparen arabera— modu progresiboan garatzeko.

10. – Hezkuntzarako tutoretzak jarraipen indibiduala eta irakasle guztien jarraipen pertsonalizatua eta taldeko jarraipena konbinatzen ditu, ikasleen gizarte-kohesioan laguntzen duten proposamen pedagogikoak aplikatuz. Halaber, ikasleek beren ikasteko prozesuan eta beren garapen pertsonalean eta sozialean inplikazio aktiboa izan dezaten sustatzen du.

11. – Hezkuntzarako taldeko tutoretza-saioen edukiak lau gai multzoren inguruan antolatu behar dira: **garapen pertsonala, pertsonen arteko harremanak, ikasteko prozesuak eta ikasketa-orientazio profesionala**. Multzo bakoitzeko edukia aldatu egingo da Oinarrizko Hezkuntzako etapetan zehar, ikasleen beharretara eta interesetara egokitu dadin.

12. – Ikastetxearen antolaketa- eta funtzionamendu-araudiak, eskura dauden baliabideen bidez, tutoretzaren koherentzia eta jarraitutasuna bermatu behar ditu ikasleak eskolatzen diren bitartean.

13. – Ikasleen tutoretza irakaskuntza-funtzioaren parte da. Ikasle guztiek izan behar dute tutore bat, eta tutore hori arduratuko da dagozkion ikasleen hezkuntza- prozesua orientatzeaz, banaka zein taldean. Tutoreak ikasleen garapen pertsonalaz, haien ongizateaz eta funtsezko konpetentzien lorpen progresiboaz arduratu behar du bereziki.

14. – Tutoreari dagokio ikasleen eskola-jarduerei buruzko guztiaren berri ematea ikasleei eta haien guraso edo legezko tutoreei —ikasleak adingabeak izanez gero—; haiek, nolanahi ere, haiek eskubidea dute irakasleengana edo ikastetxeko gobernu- organoetara jotzeko. Adin nagusiko ikasleen kasuan, guraso eta legezko tutoreek eskubide hori baliatu ahal izango dute, interes legitimoa justifikatuz gero.

15. – Tutoreari dagokio beharrezkoa den dokumentazio akademikoa formalizatu eta betetzea eta irakasle-taldea koordinatzea ikasleen kudeaketa pedagogikoari dagokionez.

16. – Ikasleen tutorearen ardura da irakasle-taldeak jarduketa-plan pertsonalizatua beharrezkoa denean prestatzeko lana koordinatzea, ikastetxeko aholkulariekin edo orientatzaileekin eta, hala badagokio, kanpoko hezkuntza-zerbitzuen aholkularitzarekin

lankidetzan arituz. Gainera, plan horren jarraipena egin behar du, eta gurasoen, legeko tutoreen eta ikaslearen solaskide nagusia izango da.

17. – Oinarrizko Hezkuntza osoan zehar, irakasle-taldeek beharrezkoak diren hezkuntza-sistemako informazioak jaso behar dituzte ikasle bakoitzari buruz, eta hurrengo mailara eta hurrengo etapara bidali. Ikastetxeak behar diren hezkuntza- sistemako informazioak jasotzeko eta bidaltzeko erregistro bat izan behar du. Tutoreak du erregistro horretako informazioa eguneratzeko eta kudeatzeko erantzukizuna. Erregistro horretan, besteak beste, kompetentzietan erdietsi den mailari buruzko datuak eta jaso diren errefortzu-neurriak eta laguntzak sartu behar dira.

18. – Ikasleek eta haien gurasoek edo tutoreek —ikasleak adingabeak izanez gero— ebaluazio-txosten bat jaso behar dute ikasturte bakoitza amaitutakoan. Txosten hori tutoreak eratzen du, irakasle-taldearen laguntzarekin, eta ikaslearen ikaskuntzei buruzko informazioa eta funtsezko kompetentzietan eskuratutako mailari buruzkoa biltzen du hor, eta, hala badagokio, hurrengo ikasturterako gomendioak eta hezkuntza- arloko errefortzu-neurrien proposamenak. Txosten hori ikasleen espedientearekin batera gorde behar da, eta ezarritako koordinazio-mekanismoen bidez eman behar da ikaslea ikastetxetik aldatzen denean.

19. – Ikastetxeko irakasle aholkulariek edo orientatzaileek laguntza eman behar diete tutoreari eta irakasle-taldeei orientazio- eta tutoretza-ekintzen plangintzan eta jarraipenean, eta ikasteko zailtasun espezifikoak hautematen eta aztertzen, eta aholkuak eman behar dituzte ikasle guztiek eskola-arrakasta izateko erantzun inklusiboen gainean. Halaber, ikastetxetik kanpoko gizarte- eta hezkuntza-arloko eta komunitate-arloko eragile eta babesleekiko elkarlana koordinatuko dute, eta ikasleei eta, ikasle adingabeen kasuan, guraso eta legeko tutoreei lagunduko diete eskola- ibilbidean zehar, eta orientabidea emango diete erabakiak hartzeko orduan, beren gaitasunak eta interesak ahalik eta hobekien gara ditzaten.

20.- Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak orientabideak emango dizkie ikastetxeei Oinarrizko Hezkuntzako Tutoretza Plana egiteko eta garatzeko.

ORIENTATZAILEEN EGINKIZUNAK

Orientabidea, hezkuntza-jarduera osoaren parte denez, irakasleei dagokie, beren irakaskuntza- eginkizunaren zati gisa. Horrek ez du eragozten gai honetan eginkizun espezifikoak esleitzea hezkuntza-orientabideko espezialitateko irakasleei (orientatzaileak).

Eginkizun hauek esleitzen zaizkie, besteak beste:

Aniztasunari erantzutea:

- Tutorearekin, taldeko irakasle taldeekin eta orientabide-departamentuaren barruan, ikasleek ikasteko dituzten zailtasun-egoerak detektatzea eta aztertzea, behar izanez gero ebaluazio psikopedagogikoa egitea, antolamenduko, metodologiako, hezkuntza- indargarriko eta, hala badagokio, curriculum-egokitzapeneko neurri komenigarrienei buruz aholkatzea eta horien jarraipena egitea.
- Ikastetxeko irakasleak aholkatzea arreta espezifiko planak eta programak diseinatzeko, garatzeko eta ebaluatzen (curriculum-aniztasuneko gelak, zereginen ikaskuntzarako gelak, Jarduera Plan Pertsonalizatua, hezkuntza-indargarri espezifiko programak, gaitasun handiko ikasleak), eta horien jarraipena egiteko.
- Adimen Gaitasun Handiak dituzten ikasleen detekzio espezifiko egitea eta irakasle taldeari NJP egiten laguntzea.
- Irakasle taldearekin elkarlanean aritzea ikastetxeko hezkuntza-indargarriko plana egiten. Plan horretan, irakasleek beraiek diseinatutako hezkuntza-neurriak hartuko dira, banakakoak edo kolektiboak, eskola-zailtasunen aurrean ikasleen ikaskuntza indartzeko.

Orientazioa eta tutoretza:

- Etapa bakoitzerako orientazio profesionaleko programa bat prestatzea ikastetxeko ikasleentzat, ibilbideak eta etorkizun profesionala aukeratzean berdintasuna sustatzeko, eta programa garatzeaz eta ebaluatzeaz arduratzea.
- Tutoretza-plana prestatzeko aholkuak ematea eta maila bakoitzeko tutoreekin aldian-aldian koordinazio-bilerak egitea, plana garatzeari eta ebaluatzeari buruz aholkatzeko, Bizikasi ekimenaren barruko proposamen didaktikoak espezifiko lantzeko programatutako jardueretan bereziki.
- Irakasleak aholkatzea DBHko 2. maila amaitzean eta etapa amaitzean, edo, hala badagokio, eskolatzea amaieran ikasleen orientazio- kontseilua prestatzeko, hezkuntza- neurriei eta prestakuntza-ibilbideko proposamenei buruzko erabakietan bereziki.
- Ikasleak eta haien familiak aholkatzea, bereziki garapen pertsonal eta akademikoarekin, hezkuntza-etapen arteko trantsizioarekin eta prestakuntza-ibilbideak aukeratzearekin zerikusia duten gaian.

Bizikidetza:

- BAT taldeko kide aktibo gisa parte hartzea - BAT taldearekin batera, bizikidetza-arazoak prebenitzeko eta konpontzeko eginkizuna gidatzea - Ikastetxean sor daitezkeen jokabide-arazoei aurre egiten eta horiek konpontzen laguntzea - Ikastetxeko koordinazio

pedagogikorako batzordearekin lankidetzan aritzea, batez ere ikasketaburutzarekin, didaktika-departamentuak eta irakasle taldeak koordinatzeko proposamenak eta jardun-planak aurkeztuta - Zuzendaritza-taldea aholkatzea hezkuntza berritzeko eta irakatsi eta ikasteko prozesuen etengabeko hobekuntzako programa-proiektuak prestatu eta abian jartzeko.

- Beste eragile batzuekiko koordinazioa: - Ikastetxetik kanpoko gizarte- eta hezkuntza-arloko eta komunitate-arloko eragileekiko eta laguntzekiko koordinazioan lankidetzan aritzea, ikasleen jarraipen egokia, integrazioa eta arrakasta akademikoa lortzeko.

TUTORETZA-PROGRAMA AURREIKUSPENA

DBH1

1go ebaluaketa	EDUKI MULTZOAK
	● Talde kohesioa ● Elkarbizitza. Gatazkak ● Ongizate digitala ● Elkarbizitza. Jazarpena, ziberjazarpena ● Ikas-teknikak ● Azaroak 25
2. ebaluaketa	EDUKI MULTZOAK
	● Hezkuntza afektibo-sexuala ● ZIUR programa ● Ongizate digitala ● Ikas-teknikak ● Martxoak 8 ● Hezkidetzak ● Emozioak
3. ebaluaketa	EDUKI MULTZOAK
	● Talde presioa ● Norbera ezagutzea ● LGTBIQ+fobia

DBH2

1go ebaluaketa	EDUKI MULTZOAK
	● Talde kohesioa ● Elkarbizitza. Gatazkak ● Elkarbizitza. Jazarpena, ziberjazarpena ● Ongizate digitala

	• Azaroak 25 • Ikas-teknikak
2. ebaluaketa	EDUKI MULTZOAK
	• Joku patologikoak • Ongizate digitala • Martxoak 8 • Ongizate emozionala • Hezkuntza afektibo-sexuala • Talde presioa
3. ebaluaketa	EDUKI MULTZOAK
	• Elkar laguntzea. • Bizitza. Baloreak • Hezkuntza afektibo-sexuala • LGTBIQ+fobia

DBH3

1go ebaluaketa	EDUKI MULTZOAK
	• Elkar-ezagutza eta arauak • Talde-kohesioa • Ordezkariek • Indarkeria matxista • Buru-osasuna eta ongizate emozionala • Ikaskuntza-prozesuaren garapena <i>Jarduera bereziak</i> BELDUR BARIK dinamizazioa. 4 ordu/taldeko (Beldur Barik) HITZ KOLPEZ antzezlan (AFA-Gazteria) INDARKERIA TAILERRA (gizarteratzeko 1.mailako ikasleak)
2. ebaluaketa	EDUKI MULTZOAK
	• Ongizate emozionala • Bizikidetzeta eta Hezkidetzeta • Hezkuntza afektibo-sexuala • Ikaskuntza-prozesuaren garapena
3. ebaluaketa	EDUKI MULTZOAK
	• Menpekotasunak, Teknoadikzioak • Bizikidetzeta eta Hezkidetzeta • Ikaskuntza-prozesuaren garapena • Orientazio akademikoa <i>Jarduera bereziak</i> Sare sozialak eta kontrol digitala: Hartu Kontrola (Vital Fundazioa)

DBH4

1go ebaluaketa	EDUKI MULTZOAK
	• Ordezkariek eta arauak • Elkar ezagutu • Elkarbizitza • Buru osasuna • Indarkeria matxista Antzerki Bitartekaritza Miren Gazteñagaren eskutik
2. ebaluaketa	EDUKI MULTZOAK
	• Adimen emozionala • Hezkuntza afektibo-sexuala • Menpekotasunak • Orientazio akademikoa
3. ebaluaketa	EDUKI MULTZOAK
	• Sare-sozialak eta osasun-mentala • Orientazio akademikoa Jarduera bereziak Sare sozialak eta kontrol digitala: Hartu Kontrola (Vital Fundazioa)

BATXI1

1go ebaluaketa	EDUKI MULTZOAK
	• Ordezkariek eta arauak • Elkar ezagutu • Buru osasuna • Ziberjazarpena • Indarkeria matxista • Orientazio akademikoa Jarduera bereziak Indarkeria: Psicowoman bakarrizketa. (AFA-LAIA)
2. ebaluaketa	EDUKI MULTZOAK

	● Harreman osasuntsuak ● Pornografia ● Pantailen erabilpena ● Orientazio akademikoa
3. ebaluaketa	EDUKI MULTZOAK
	● Suizidio jokabidea ● Norberaren ezagutza ● Publizitatearen eragina ● Orientazio akademikoa

BATXI2

1go ebaluaketa	EDUKI MULTZOAK
	● Ordezkariek eta arauak ● Elkar ezagutu ● Buru osasuna ● Antsietatea ● Orientazio akademikoa <i>Jarduera bereziak</i> Indarkeria: Psicowoman bakarriketa. (AFA-LAIA)
2. ebaluaketa	EDUKI MULTZOAK
	● Suizidio jokabidea ● Ziberbullying ● Menpekotasunak ● Maskulinitateak ● Orientazio akademikoa
3. ebaluaketa	EDUKI MULTZOAK
	● Sexu-hezkuntza ● Harreman osasuntsuak ● Orientazio akademikoa

1go ebaluaketa	EDUKI MULTZOAK
	• Ordezkarriak, arauak eta bizikidetza • Eskola-jazarpena • Talde-kohesioa eta bizikidetza • Ongizate emozionala • Indarkeria matxista • Ikaskuntza-prozesuaren garapena • Orientazio akademikoa (2.maila) <i>Jarduera bereziak</i> MOTIBAZIO HITZALDIA (Hizlaria: N.B. ikasle ohia)1.go maila ORIENTAZIO-AKADEMIKOA hitzaldia 2.maila GERTA DAKIZUKE (AISLEME)1go maila ADIKZIOAK (GAPPA)1go maila LANEAN DROGEN ERABILPENA (GAPPA) 2.maila
2. ebaluaketa	EDUKI MULTZOAK
	• Bizikidetza eta Hezkidetza • Hezkuntza afektibo sexuala • Ikaskuntza-prozesuaren garapena • Orientazio akademikoa (2.maila) <i>Jarduera bereziak</i> HEZKUNTZA AFEKTIBO-SEXUALA (ZEHAZTEKE)1.go maila + 2FE1 IKT (ASAJER-GAPPA) 1go maila ORIENTAZIO-AKADEMIKOA 2.maila
3. ebaluaketa	EDUKI MULTZOAK
	• Bizikidetza eta Hezkidetza • Adikzioak • Ikaskuntza-prozesuaren garapena • Orientazio akademikoa (2.maila) ORIENTAZIO-AKADEMIKOA 2.maila

1go ebaluaketa	EDUKI MULTZOAK
	• Ordezkarriak, arauak eta bizikidetza • Ongizate emozionala • Indarkeria matxista • Orientazio akademikoa (2.maila) • Adikzioak • Hezkuntza afektibo-sexuala <i>Jarduera bereziak</i> SIDALAVA (Hizlaria M.R) 1go maila GERTA DAKIZUKE 1go maila LANEAN DROGEN ERABILPENA (GAPPA) 2.maila ORIENTAZIO AKADEMIKOA hitzaldia 2.maila
2. ebaluaketa	EDUKI MULTZOAK
	• Ongizate emozionala • Orientazio akademikoa (2.maila) <i>Jarduera bereziak</i> IKT (ASAJER/GAPPA) 1go maila ORIENTAZIO AKADEMIKOA 2.maila
3. ebaluaketa	EDUKI MULTZOAK
	• Ongizate emozionala • Orientazio akademikoa <i>Jarduera bereziak</i> ORIENTAZIO AKADEMIKOA 2.maila

GM

1go ebaluaketa	EDUKI MULTZOAK
	• Ordezkarriak eta arauak • Elkar ezagutu

	• Ongizate emozionala • Orientazio akademikoa • Hezkuntza afektibo-sexuala <i>Jarduera bereziak</i> SIDALAVA (Hizlaria M.R) 1go maila ORIENTAZIO AKADEMIKOA 2.maila GERTA DAKIZUKE 1go maila
2. ebaluaketa	EDUKI MULTZOAK
	• Ongizate emozionala • Orientazio akademikoa <i>Jarduera bereziak</i> IKT (ASAJER/GAPPA) 1go maila ORIENTAZIO AKADEMIKOA 2.maila
3. ebaluaketa	EDUKI MULTZOAK
	• Ongizate emozionala • Orientazio akademikoa <i>Jarduera bereziak</i> ORIENTAZIO AKADEMIKOA 2.maila

3.3. Esperientziak, programak eta proiektuak

Izenburua edo gaia *Digitalizazioa eta IPDa*

Digitalizazioa eta IPDa

Helburuak

LIDERGOA ETA GOBERNANTZA

Digitalizazio batzordea dinamizatu, ardurak banatuta.

IRAKASKUNTZA IKASKUNTZA

Ikasleen lortu beharreko konpententzia digitalak aztertu.

EBALUAZIOA

Ikastetxean konpetentziak ebaluatzeko lanabesak definitzea eta programazioetan txertatzea

EINIKA

EDUKIAK ETA CURRIKULUM-a

Irakasleek sortutako material digitala gordailu komun batean partekatzea. Departamentuetako

DRIVE partekatua

ELKARLANA

Ikastetxeak komunikazio-plana garatu, INIKA, zentroaren webgunean, sare sozialetan,

informazio eta komunikazio-prozesuak garatuz.

Ikastetxeak barne dokumentazioa sarean eta hodeian antolatzea, plataforma, egitura eta

arduradun egokiak aukeratuz, edukiak partekatzeko eta lankidetzan jarduteko.

AZPIEGITURAK

Ikastetxearen azpiegitura fisiko eta birtualak eguneratuta mantentzea

Azpiegitura ziberseguruak mantentzea

Izenburua edo gaia *Título o tema*

- **Literatur lehiaketa**

Oharrak *Observaciones*

25-26 ikasturtean Literatur Lehiaketaren XXX, edizioa ospatuko da, hizkuntzen mintegien arduraz. Zaraobe Institutuko edozein ikaslek parte hartu dezake lehiaketa honetan. Aurkezten diren lanak bertsoz edo prosaz idatziak izango dira, euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez edo ingelesez. Gaia aldetik, libreza izango da.

Hizkuntza bakoitzean hiru kategoria izango dira:

- ❖ DBHko 1. eta 2. maila
- ❖ DBHko 3. eta 4. maila
- ❖ Batxilergoa.

DENBORALIZAZIOA

- ★ Lehiaketaren **oinarriak** abenduaren 12an argitaratuko dira.
- ★ Lanak **2026eko martxoaren 13a baino lehen** aurkeztuko dira hizkuntza departamentuetan.
- ★ **Sari banaketa** apirilaren 24an bigarren hamabostaldian egingo da.

HELBURUAK:

- Idazteko zaletasuna suspertzea ikasleen artean.
- **Sormena** eta asmamena **sustatzea**
- Norberaren **ahalegina saritzea**
- **Irakurketa sustatzea** (IRAKURZALETASUNA proiektuarekin lotutako helburua)
- Literaturarekiko zaletasuna sustatzea.

Izenburua edo gaia *Título o tema*

- **Hedatze:** Eskola-arrakasta, bizikidetza eta inklusioa sustatzeko arratsaldeko jarduerak

Oharrak *Observaciones*

2025–2026 ikasturtean, gure ikastetxeak HEDATZE proiektua garatzen jarraituko du, 2024ko maiatzean Hezkuntza Sailak onartutako bi urteko deialdiaren baitan. Proiektua bi ardatz nagusitan oinarritzen da:

- Laguntza akademiko pertsonalizatua, zailtasunak dituzten edo ikasgaiak gainditu gabe dituzten ikasleei zuzendua.
- Taller ireki eta dinamikoak, ikasleen autonomia, autoestimua eta elkarbizitza sustatzeko, parte-hartze aktiboa eta malgutasuna bultzatuz.

Eskerrak hezkuntza-komunitatearen lankidetzaren eta konpromisoari, proiektuaren bigarren urtea aurrera doa elkarlanean: irakasleak, ikasleak eta IGEak protagonista dira.

HELBURUAK

- **Eskola** denboren **eredu berriak** erabili eta ebaluatzea.
- **Emaitzen eta bizikidetzaren** hobekuntza sustatzea. Emango diren errefortzuak erabat lagungarriak izango dira ikasleen emaitzak hobetzeko.
- **Euskararen** erabilera bultzatzea eskola orduz kanpo.
- **Eskola arrakasta** ziurtatzea, ikasgai pendienteak dituzten ikasleentzat.
- Hezkuntza Komunitate osoari, eskola orduz kanpo, lanerako **bilgune gehiago** eta **arreta denbora gehiago** eta era zehatzagoan eskaini, bereziki gehien behar eta nahi duen ikasleria (**EKITATEA**) eta baita gehiago eskatzen duen ikasleria (**BIKAITASUNA**).
- Ikasleen **autonomia-gaitasuna landu**, euren ikasketa prozesuaren jabe eta erantzule izateko aukera eskaini. Honek pertsona izateko konpetentziarekin lotura estua dauka.
- Baliabide gehiago eskaini eta ditugun **baliabidei etekin** handiagoa atera. Errekurtsoak horrela optimizatzeko aukerak ematen ditu proiektu honek, instalazio egokiak dituen ikastetxe batean.
- **Eraginkortasuna bilatu** arazo akademiko eta pertsonalei bestelako irtenbideak emanda. Orientazio zerbitzua eta udal-psikologoak esku hartzeko aukerak ematen dizkigu esparru honek.
- **Irakurketa sustatzea** hezkuntza-helburu nagusi gisa. Baita **matematika zein zientzietan indartze akademikoa** eskaintzea bereziki.

- Ikasleek, eskola-orduetatik kanpo, **konpetentziak** eskura ditzaten bultzatzea. Horretarako. Eskolako kurrikulumari lagunduz, baina era ludikoago batean, Hedatze tailerrak gaitasun ezberdinak lantzeko moduan diseinatuko dira.
- **Eleaniztasunaren bidean** sakontzea ordutegi barruan hizkuntza gehiago eta ahozotasuna lantzeko aukerak emanez. Tailer batzuk eta errefortzuek hizkuntza gaitasuna dute helburu.
- Zaraobe Institutua topagune bihurtzea, irakaskuntza ez arautua sustatzeko eta **heziketa integrala** bultzatzeko. Errekurtsoak horrela optimizatzeko aukerak ematen ditu proiektu hau, instalazio egokiak dituen ikastetxe batean.

Proiektuarekin jarraituz, berrikuntza pedagogikoarekin, hezkuntza-berdintasunarekin eta ikasleen ongizate integralarekin dugun konpromisoa berresten dugu

Denboralizazioa

Jarduerak urriaren 6an hasiko dira eta maiatzaren 27an amaituko. Asteazken zehar hiru arratsaldetan garatuko dira (astelehena, asteartea eta asteazkena), 14:55etik 16:35era bitartean. Saioak bi txandatan antolatuko dira, ikasle garraiatuei eta ez-garraiatuei zuzenduta.

Izenburua edo gaia *Título o tema*

- **Bidelaguna.** Errefortzu programa. (DBHko 1.eta 2.mailako ikasleei zuzenduta)

Oharrak *Observaciones*

2025–2026 ikasturteko Bidelaguna programaren helburua eskola-arrakastaren indizeak hobetzea da, eta horretarako:

- Ikasleei, batez ere ingurune fisiko eta estimulu egokirik ez dutenei, laguntza eta bitartekoak ematea, denbora osagarri bat eman dezaten eskola-atzerapenari aurre egiteko edo hura prebenitzeko.
- Ikasleen irakurketarako konpetentzia eta matematikarako konpetentzia indartzea. Asteazken gutxienez ordu bat emango da konpetentzia bakoitzeko.- Lanaren antolaketak hobetzeko eta ikasteko ohiturak hartzeko gakoak ematea.
- Ikasleek beren gaitasunez dituzten itxaropenak eta ikastetxeak bere ikasleek dituenak hobetzea.
- Familien eta ikastetxearen arteko harremana hobetzea.

Proiektu honek ikasleen garapen akademikoa ez ezik, emozionala ere sustatu nahi du, ikaskuntza-ingurune seguru eta motibatzaile bat sortuz.

Denboralizazioa

Jarduerak **urriaren 6an hasi eta maiatzaren 27an** amaituko dira. 14:55etik 16:35era bitartean. Saioak bi txandatan antolatuko dira, ikasle garraiatuei eta ez-garraiatuei zuzenduta.

Ikasturtearen hasieran, tutoreek eta orientatzaileak, irakasleekin bildu ondoren, familiek beren seme-alabek programa honetan parte hartzeko onartu dute, bertaratzeko konpromisoa hartuta.

Izenburua edo gaia *Título o tema*

- **HNP**
Gure ikastetxeko euskara erabilera normalizatzea eta bultzatzea.

Oharrak Observaciones

Duela 20 urte baino gehiago ZARAOBE INSTITUTUAK euskaren normalizazioaren apustua egin zuen eta egiten jarraitzen dugu. Horretarako hainbat ekintza eta antolaketa diseinatu ditugu kurtso osoan zehar:

Ikasturte honetan **2022-2026 laurteko proiektua amaituko** dugu, oraingo egoeraren diagnosi eta hasunarketa egingo dugu eta horretan oinarritu proiektu berria eratzeko.

- Euskararen egunaren ospakizuna (eta Euskaraldiarena???) (ikastetxe osorako)
- SAN TOMAS JAIA (ikastetxe osorako, abenduak 23)
- BERTSO BIZI GAZTE (DBH 3.mailakoei)
- KORRIKA 24 (martxoan)
- IKASBIDEAK edo HITZALDIAK (ikastetxe osorako)
- Ikastetxeko eremu desberdinetan euskararen erabilera sustatzeko ekintzak
- Aurtengo proposamena: ikasle eta irakasle batzordea euskararen erabilera sustatzeko eta indartzeko

Izenburua edo gaia Título o tema

AGENDA 2030
ENERGIA

Oharrak Observaciones

Proiektuaren bitartez, garapen iraunkorra sustatu nahi da, alderdi ekologiko eta sozialei erreparatuz.

PLANGINTZA

- Jarduera plana ikasleen parte hartze aktiborekin: INGURUMEN BATZORDEA
 - Ag2030eko helburuekin sentsibilizatuta egon daitekeen ikasleak identifikatu, klase guztietan ekoordezkariak izendatu.
 - Sentsibilizazio kanpainak diseinatu: kontsumo eta hondakinen murrizketa, hondakinen kudeaketa egokia, elikadura osasuntsua...
 - Kontsumo eta ekoizpen arduratsuarekin lotutako jarduera zehatzak:
 - Hondakinen murrizketa eta kudeaketa: ikasgela guztietan papera birziklatzeko edukiontzia jarri, edukiontzi gehiago jartzearen beharra aztertu, jantokiko hondakin zer egin daitekeen aztertu...
 - Elikagaien xahuketaren inguruko lanketa garatu, eskualdetik zehaztutako lan ildoak jarraituz.
 - Ekintza osagarriak: Urdaibai ekoetxea eta Kantauriko Urkidetza ur patzuergoa.
 - Ibaialde programa.
 - Ortu ekologikoa eta irisgarriaren lanketarekin jarraitzea.
- Eskualdeko beste eragileekin lan sarea (ikastetxeak, udalak, Aiarako koadrila...).
- Eskolen arteko foroan partaide izan.
- Udal foroan parte-hartu.

Izenburua edo gaia *Título o tema*

Europar proiektuak: Lanbide Heziketa

Oharrak *Observaciones*

Badira jada urte batzuk, heziketa zikloetako ikasleen garapena indartu nahian gure ikastetxea mundura irekitzeko pausuak ematen ari garela. Ikasleek Lantokiko Prestakuntza ikasgaia atzerrian egitean eta beste errealitate batzuez jabetzean profesional eta pertsona bezala hazi eta aberasten dira.

Internalizazio proiektu hau dinamikoa da eta etengabe ideia berri eta hobekuntzen bila gabiltza. 2025-2026 ikasturte honetan proiektu europarrean jorratuko diren ildoak ondorengoak lirateke:

- Beken %100a bete, ahalik eta mugikortasun gehien aurrera eramaten, behar izatekotan ikaslanekin lan eginez eta beka gehiago eskuratuz.
- Oraingo ikastetxeekin lanean jarraitu harremanak sendotuz; EUC_SYD, Social- og sundhedsskolen (Fredericia) Danimarkan, Lyceé Gustav Eiffel Frantzia, Zesto meritum Polonia, Summa College Holandan, Keuda Finlandian eta Engim Lombardia Bergamo Italia.
- Kolaborazio akordioak eta harremanak ikastetxe berriekin ezarri. Ikastetxe berrien bila jarraituko dugu.
- Enpresekin harremanak mantendu eta ikasleak bidali. Irish Alzheimer Association, Proatlantico, Petrov, Braimport Eindhoven..
- Ikasleak jasoko ditugu. Bai Danimarkatik, bai Frantziatik. Finlandiatik agian ere. Beste ikastetxei ere aukera hau zabaldu.
- Irakaslegoaren mugikortasunak indartu, job shadowing-eko kalitate oneko esperientziak aurrera eramanez. Mugikortasun hauek aurrera eramanez.
- Berrikuntza arloan lan egin KA2 proiekturen bat aurrera eramateko aukerak aztertuz.
- Erasmus lan taldea sendotu.
- Mekatronika 1.mailako eleanitza taldeko ikasleak, enpresan egin behar dituzten hiru asteetatik bi atzerrian burutzea, talde mugikortasun batekin.

Izenburua edo gaia *Título o tema*

Berrikuntza: lanbide heziketa

Oharrak *Observaciones*

Badira urteak gure ikastetxea berrikuntzan pausoak ematen hasi zela. Aurten berrikuntza prozesu bat sortzea da helburua, horretarako berrikuntza talde bat osatuz. Berrikuntza-taldea inplikaturik, egonkorra, etengabea eta plurala izan behar da.

Horretarako Tknikako formakuntzak jasoko ditu aurten berrikuntza arduradunaki proiektu hau aurrera eramateko: Berrikuntza errutinak (BBEE).

Berrikuntza proiektu honen **helburu nagusiak** hauek dira:

1. Irakasleak sentsibilizatzea.
2. Hobekuntzak, ideiak, aukerak..., berrikuntza sistematiko bihurtzea. Berrikuntza-kultura sortzea.
3. Ikastetxean egindako produktu, zerbitzu, proiektu, prestakuntza eta abarrei zabalkuntza eta difusioa ematea.
4. Hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea sustatzea.

5. Aliatuekin, beste zentro eta enpresa batzuekin harremanak estutzea eta aukerak sortzea.

Jarraibideak

